



Adierazpen Instituzionala

Europar Batasunak erronka erraldoiei egin behar die aurre egunotan. Besteak beste, errefuxiatuen ihesak eragin duen tragedia humanitaria. Milaka pertsona dira, etsipenak bultzatuta, Siria, Irak, Afganistan eta Afrikako hainbat herrialdetan bizi diren gatazka armatuen eragin beldurgarrietatik ihesi, Europarako bidera hartu dutenak. Drama honek, bigarren mundu gerratik gure kontinentean ezagutu ez den neurria hartu du azken urte hauetan.

Europar Batasunerantz zuzentzen diren errefuxiatu kopuruen hazkunde hau izaera konplexu eta askotarikoa duen arazo orokorra da. Arazo honen erdian arriskuan jartzen da mundu honetan baliorik handiena duena, pertsonen bizitza, alegia. Eta, horrela izanda ere, talde populista eta xenofoboek nolabaiteko pizkundea eragiten du, eta arriskuak planteatzen ditu Batasunaren eta Schengen esparruarentzat; ondorioz, Europar Batasunari egitasmo batu bihurtzeko orduan planteatzen zaion erronkarik handienetakoa da hauxe.

Errefuxiatuak horren kopuru handitan eta masiboki iristeak europar Herrialde guztiei eragiten die, baina arazo horiek konpontzeko erantzunak ezin dituzte Estatuak beren kabuz eta era isolatuan eman. Aldi berean, erabat okerrak eta emaitzarik gabeak izan dira Europar Batasunak orain arte aldirik aldi gure kontinenterantz abiatu diren eta une honetan iraunkor bilakatu diren migrazio olatuen aurrean hartutako neurriak.

Arazo honek ezinbestean behar du premiazko neurriak hartzea baina, aldi berean, Europa mailako neurriak hartu beharko dira gertakizun dramatiko honi aurre egiteko, agerian geratu baita fenomenoak luzaro geratzeko etorri dela.

Argia eta agerikoa da, beraz, Europar Batasunak agenda politiko batua eraiki behar duela, arazo handi honi arreta zentzuzko eta logikoa emateko. Agenda politiko hau europar arima piztu eta elikatu duten baloreetan oinarritu beharko da: gizatasuna, solidariotasuna eta erantzukizuna. Balore horiek europar esparrua erakargarri egin dute gure inguruan gatazka armatuen eta guden ondorioz sortzen diren izu ikarak sufritzen dituzten pertsonentzat. Balore horiek adierazten dira, besteak beste, Europar Batasunaren Tratatuan babes eskubideari buruz aurreikusten diren xedapenetan (3.2. artikulua) eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartan (18. eta ondorengo artikulua). Argi eta garbi ulertu behar da Europar Batasunak printzipio horiek behar bezala betetzeko neurriak hartu behar direla. Babesari eta inmigrazioari buruzko europar politika batua da, beraz, kontinentean hartzen dugun esparru honetan gatazka humanitario ikaragarri honetan eman daitekeen erantzun zuzen bakarra.

Arestian esandakoagatik guztiagatik, Udal honek :

Lehena.- Europar Batasunari eskatzen dio babes eta inmigrazio politikak batzeko printzipioa betetzea, besteak beste, babesa emateko europar sistema bideratzea, Europari babesa eskatzen dioten pertsonen sarbide segurua emateko bisatu humanitarioak, gatazka egoeran dauden herrialdeen mugakide diren esparruetan europar babesa eskatzeko eskariak kudeatzeko harrera zentroak irekitzea, europar herrialde ezberdinetan errefuxiatu kuotak banatzeko irizpidea eta sistema definitzea eta Babesa emateko Europar Agentziari (EASO) ematen zaizkion baliabide finantzarioak handitzea- mediterraneo aldeko herrialdeetan eta bereziki Grezia eta Italian- eta etorkinak babesteko eta erreskatatzeko Frontex sistemarako (Triton eta Poseidon eragiketak) baliabideak handitzea .

Bigarrena.- Espainiar Gobernuari eskatzen dio irailaren 14an Europar Batasunean egingo den gailurrean -Estatuetako agintari gorenekin egin beharko litzatekeena- inmigrazio eta babesari buruzko europar politika bateratua martxan jartzea defendatzea eta, aldi berean, Batasunak errefuxiatuak hartzeko ezarriko duen derrigorrezko kuota onartzeko hitza ematea.

Hirugarrena.- Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, dagozkion eskuduntzen barruan eta Foru Aldundiekin eta Eudel erakundeareki lankidetzan, Europara Batasunaren zuzentarauen arabera jarduera plana egin dezala Euskadin errefuxiatuak hartzeko, eta premiazko laguntasun ekonomikoak bidera ditzala egoera larrienei erantzuteko.

ERMUA 4 SEPTIEMBRE 2015

A handwritten signature in dark ink, appearing to be 'Hau' followed by a stylized surname.

Declaracion institucional

La Unión Europea está afrontando, en estos últimos tiempos, unos enormes retos. Entre ellos, la tragedia humanitaria de las decenas de miles de personas que, desesperadamente, huyen de las terribles consecuencias que acarrearán los conflictos armados en Siria, Irak, Afganistan y otros diversos países africanos. Un drama que ha adquirido, en estos últimos años, proporciones que, desde la segunda guerra mundial, no se han conocido en nuestro continente.

Este incremento exponencial de los flujos de refugiados hacia la Unión Europea es un problema global de naturaleza compleja y diversa. Un problema en donde se pone en riesgo lo más preciado de este mundo que son las vidas humanas. Un problema que, pese a ello, determina un cierto auge de los grupos populistas y xenófobos, plantea riesgos sobre la propia Unión y el espacio Schengen y, por tanto, representa uno de los mayores desafíos de la Unión Europea cara a su futuro como proyecto unitario.

La llegada masiva de refugiados afecta a todos los Países europeos, pero los Estados no pueden, aisladamente, instrumentar respuestas que contribuyan a superar el problema. A su vez, las acciones que la Unión Europea ha implementado ante las periódicas olas migratorias hacia nuestro continente, convertidas ahora en permanentes, han resultado erróneas y fallidas.

Un problema cuya solución requiere la adopción de medidas de emergencia pero, al tiempo, la aprobación de unas medidas estructurales europeas que afronten de raíz este dramático fenómeno cuya vocación de durabilidad parece manifiesta.

Es claro y evidente, en suma, que la Unión Europea debe construir una agenda política común que preste una razonable y lógica atención a este enorme problema. Una agenda política que se fundamente en los valores que han inspirado y nutrido el alma europea: humanidad, solidaridad y responsabilidad. Valores que han hecho del espacio europeo un destino atractivo para las personas que sufren, en nuestro entorno, los horrores derivados de los conflictos y las guerras. Valores que se acreditan, entre otros, en las disposiciones sobre derecho de asilo que se integran en Tratado de la Unión Europea (artículo 3.2) y en la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea (artículo 18 y conexos). Debe entenderse que la Unión Europea debe adoptar las medidas necesarias para cumplir adecuadamente dichos principios. Una política común europea sobre asilo e inmigración es, por tanto, la única respuesta que puede

permitir otorgar en nuestro espacio continental una solución a este sobrecogedor conflicto humanitario.

Por todo lo anterior este Ayuntamiento:

Primero.- Insta a la Unión Europea para cumplimentar el principio de comunitarización de las políticas de asilo e inmigración, constituyendo una agenda europea que, entre otras cuestiones, integre un sistema europeo común de asilo, los visados humanitarios que permitan un acceso seguro de los demandantes de asilo a Europa, la apertura de centros de recepción en las áreas limítrofes a los Países en conflicto para operar con las solicitudes de asilo europeo, la definición de los criterios y del sistema de distribución de las cuotas de refugiados entre los distintos países europeos así como el aumento de los recursos financieros hacia la Agencia Europea de Protección al Asilo (EASO), los países mediterráneos, fundamentalmente Grecia e Italia- y las operaciones del sistema Frontex de salvaguardia y rescate de emigrantes (Triton y Poseidon).

Segundo.- Insta al Gobierno de España para que defienda ante la Unión Europea en la próxima cumbre del 14 de septiembre – cumbre que debiera ser de las máximas autoridades de los Estados- la puesta en marcha de una política común europea en materia de inmigración y asilo y, al tiempo, se comprometa a aceptar la cuota obligatoria de acogida de refugiados decidida por la Unión.

Tercero.- Insta al Gobierno Vasco en orden a que, en el ejercicio de sus competencias y en coordinación con las Diputaciones Forales y Eudel, elabore, acorde con las directrices de la Unión Europea, un plan de actuación que permita acoger en Euskadi a los refugiados y habilite ayudas económicas de emergencia para paliar las situaciones de extrema gravedad.

ERMUA 4 SEPTIEMBRE 2015

A handwritten signature in dark ink, appearing to read 'Hain' followed by a stylized flourish.